

LEHENDAKARIAREN EBAZPENA

Ikusirik Sakanako Mankomunitateko idazkariak, Miren Ortiz Olabe andreak, soldatarik gabeko baimena eskatu duela abuztuaren 1etik aurrera, bera ordezkatzeko beharra ikusi da. Ondorioz, kontratazio prozedura arautuko duten oinarriak prestatu dira.

Lehendakaritzaren ekainaren 1eko 224/2023ko Ebazpenaren bidez, Sakanako Mankomunitateko idazkaria oposizio-lehiaketa bidez ordezkatzeko deialdiaren oinarriak onartu ziren, eta prozedurari hasiera eman zitzaion.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean ekainaren 8an argitaratu zen, eta eskabideak aurkezteko epea ireki zen. Hilabete bereko 23an, arratsaldeko 14:30etan amaitu zen epea, eta denbora horretan, 9 izangai aurkeztu ziren.

Deialdiaren 4. oinarriaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, behin-behineko onartuen eta baztertuen zerrenda argitaratuko da. Inor baztertzen ez bada, ordea, 5. oinarriak ezartzen duen bezala, zuzenean argitaratuko da behin-betiko zerrenda. Kasu honetan, bederatzi izangaiak onartuak izan dira, deialdian eskatutako dokumentazioa aurkeztu dute eta (NANaren kopia, gidabaimenaren kopia, tituluaren kopia eta euskara maila, 3.2 oinarrian zehaztutakoa).

Behin-betiko zerrendarekin batera hautaprobak egiteko eguna, ordua eta tokia jakinaraziko dira.

Horiek horrela, Sakanako Mankomunitateko Estatutuek ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

ERABAKI DUT:

1.- Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. Hurrengo izangaiak onartuak izan dira:

1. ABUCIDE AYLAGAS, AMAIA

2. AIESA ANDRES, EGUZKIÑE
3. ARIZALETA AZCONA, OLATZ
4. LEACHE ARRESE, ANA
5. LOPEZ VILLANUEVA, GARAZI
6. MERCHAN FERNANDEZ, TASIO
7. ROS INDURAIN, JULEN
8. VERGARA ECHARRI, GARBIÑE
9. ZELAIA ZUBIKOA, INGE

2.- Ebazpena interesatuei jakinaraztea, eta Sakanako Mankomunitatearen iragarki oholean eta webgunean (<http://sakana-mank.eus/>) argitaratzea.

3.- Hautapen probak egiteko eguna, ordua eta tokia adieraztea:

- Eguna: uztailaren 10
- Ordua: goizeko 9:30tan
- Tokia: Sakanako Mankomunitateko Batzar aretoa

Ebazpen honen aurka, nahi baldin bada, hauetako 3 errekurtsoren bat ezarri daiteke:

- A) Berraztertze Errekurtsoa, hilabeteko epean, egintza administratiboa emandako organo berdinarean aurrean, notifikazioa egiten den hurrengo egunetik hilabeteko epean.
- B) Errekurtsu Kontentzioso-Administratiboa jarri daiteke Nafarroako Auzitegi Nagusian, notifikazioa egiten den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.
- C) Edo aldez aurretik, nahi baldin bada, "Altzadako helegitea" Nafarroako Auzitegi Administratiboan, notifikazio egunetik hilabeteko epean.